



BUSTURIALDEKO IKASTETXE PUBLIKOAK EUSKARAZ BLAI

- ALLENDE SALAZAR HLHI - Gernika-Lumo
- HAIZEDER HHI - Nabxitua
- AROZENA BARRUETA BHI - Bermeo
- J.M. UZELAI HLHI - Busturia
- BARRUTIA HLHI - Arratzu
- MONTORRE HLHI - Gautegiz Arteaga
- BARRUTIALDE BHI - Arratzu
- MUNDAKA HLHI - Mundaka
- GERNIKA BHI - Gernika-Lumo
- SAN FRANTZISKO HLHI - Bermeo
- URRETXINDORRA HLHI - Muxika

HHI
Haur Hezkuntzako Ikastetxea

HLHI
Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxea

BHI
Bigarren Hezkuntzako Ikastetxea

LEA-ARTIBAI eta MUTRIKUN

Kalitatezko
Euskal Irakaskuntza Publikoa





German Velayos Gainza
Gernika-Lumo

Euskararen oasia

Pentsa dezagun une batez basamortuan gaudela. Sekulako ibilbidea egin dugu eguzki astunaren azpian. Gauetan, ostera, hotz zorrotzak gorputz guztia labandak bezala zeharkatu gaitu. Ura bilatzen gabilta han eta hemen, baina huts. Tarketa hareazko ekaitzek azalean *peeling* sakona egiten digu. Ibili, jausi eta altxatu; ibili, jausi eta altxatu... Indarrak nondik datozen jakin barik, helmugarik gabeko noranzkoan goaz. Badakigu gure bizia joan dagoela; hala ere, aurrera egin behar dugu, bizirauteko aukerarik nahi badugu.

Drama ez da hor bukatzen. Aldaketa klimatikoak erronka berriak dakartzkigu. Basamortua zabaltzen dabil mundura, eta gero eta gehiago gara idortasunaren preso. Alabaina, presondegiak ez dituzte pertsonak hartzen, hizkuntzak baizik; zehazki, gutxituak. Basamortua ez da guk DBHko liburuetan irudikatuta ikasi duguna: gure gizartea da.

Ur-eskasiak euskararen erabilera ulertzen laguntzen digu (urria). Harea-ekai-

tzak eta erorketak euskarak bere bidean aurkitzen dituen oztopo politiko, ekonomiko... guztiak dira. Hori gutxi balitz bezala, tenperaturaren kontua dago. Hauek (beroak eta hotzak) beste hizkuntza/gizarte batzuetako presioa irudikatzen dute; hala nola, frantsesa eta espainola. Ah! Ahaztu baino lehen: aldaketa klimatikoaren ondoriozko basamortuaren zabalkundea hizkuntza gutxituen egoera da, politikari edo botere faktikoen inakzioak indartuta.

Erraza da goikoei egotea hizkuntzaren egoerarena. Eguneroko erabiltzaileok, ordea, badugu basamortua emendatzearen errua ere. Ikusi dituzue euskararen kale-erabilaren azken urteetako tendentziak? Mingarriak, benetan. Beherakorrak badira ere, azken neurketan gure eskualdeak (Lea-Artibai eta Busturialdea) euskararen oasiak dira; batez ere, Lea-Artibai (hiztunak: %76). Busturialdeak laugarren postua du, hiru gipuzkoar eskualderen ostekoa (hiztunak: %36). Triste da neurtutako 22 eskualderen artean bik baino ez gaintzea %50.

Irten gaiten behingoz basamortutik eta bihur dezagun gurea euskararen etxea. Ea lortzen dugun hizkuntza gutxituen oasien beharrianik ez izatea!

Horiek horrela, gaurko egunak zentzua hartzen du. Inoiz baino gehiago, eta inoiz baino sendago aldarrikatu behar dugu gure hizkuntza, nortasuna, bizimodua, kultura, zerbitzuak... Laburtuz, gure HERRIA. Irten gaiten behingoz basamortutik eta bihur dezagun gurea euskararen etxea. Ea lortzen dugun hizkuntza gutxituek oasien beharrianik ez izatea! Euskarak gurean eta besteak haienetan sustraitzeko galarazpenik ez egoteko sasoia dugu!

Beno... edo ez: euskararen kontrako ebazpen judizialak, kriminalizazioa, ultraeskuina, Guggenheim Urdaibai...

Besterik gabe, Gora Euskara Askatuta!



Leire Ikarán
Ondarroa

Euskara ez da neutroa

Hizkuntza herri batek edo pertsona batek bere burua eza-gutu eta ulertzeko zein gainerakoak ezaugarrazteko sortzen duen bitartekoa dela irakurri dut hor nonbait. Gainera, ezinbestekoa dugu gure gizartearen zein beste edoizen gizarteko baloreak eta ideologiak ulertzeko eta transmititzeko. Beraz, izena duenak badu izana eta izendatzen dugun orok jasotzen du izaera bat ezinbestean.

Hizkuntzaren bidez errealitatea izendatzen dugula argi gelditu da, baina errealitatea bera ere interpretatzeko balio digula ezin dugu ahaztu. Izan ere, gure gizartearen imaginario sinbolikoa hizkuntzaren bitartez eraikitzen da.

Baina, zer gertatzen da, sexismoa errotuta dagoen gizarte batean, hizkuntzaren auziarekin? Ba, sexismo hori derrigorrez islatuko dela hizkuntzan zein hizkeran. Eta Euskara ez da salbuespena.

Hizkuntza sexistei buruz ari garenean,

Hizkuntzaren bidez errealitatea izendatzen dugula argi gelditu da, baina errealitatea bera ere interpretatzeko balio digula ezin dugu ahaztu

gastelaniaren adibidea bururatzen zaigu gehienoi, genero maskulinoa izaten delako orokortzailea. Euskararen kasuan aldiz, genero markarik gabeko hizkuntza denez, askotan pentsatu izan dugu ez dela hizkera sexista bat; baina bada, eta baditu bere diskriminazio ardatzak.

Jarri arreta apur bat gure eguneroko hizkeran. Berdin hitz egiten diegu haurrei, neska edo mutila izan? Noski ezetz, izan ere, ezarritako generoaren arabera, jendea desberdin komunikatzen da haurrekin. Zenbat aldiz entzun dugu heldua neskari «printzesa» deitzen eta mutilari,

berriz, «txapeldun»? Eta, gainera, ahots doinu ezberdinak erabiliz.

Izen neutroekin ere sexismoa nabaria da. «Garbitzaile» hitza esatean, ze irudi datorkigu burura? Emakume batena, ezta? Eta «erizaina» esaten badut? Berdin. «Medikua», aldiz, ze generori esleitzen diogu? Langilea? Politikaria? Normalean, gizonezkoekin lotzen ditugun lanbideak dira. Hitzok ez dute generorik euskaraz, baina asoziazio kultural baten ondorioz ezarri diegu genero bat ala bestea.

Euskara ez da berez hizkuntza sexista bat, baina kultura sexista batean murgilduta dago eta horrek bere hizkera ere halakoxea izatea dakar. Hizkuntzaren erabilera sexista da aldatu behar dena, hizkuntzak berak aukera ugari ematen ditu errealitatea beste modu batuzetan eraikitzeko, asmatzeko, jolasteko... Gure bizitzak modu inklusiboago batean deskribatzeko eta eraikitzeko.

Gora!!!

EUSKARA



lea artibai
i k a s t e t x e a

ABENDUAK 3,
EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

GEU
gara
euskara!

EUSKARAK
365
EGUN



Ajangizko
Udala



AMOROTO
udala



ARRATZUKO UDALA



AULESTIKO
Udala



BERMEOKO
UDALA



BERRIATUA
EUZATEKO UDALA



Eako Udala



Etxebarria
udala



Forbio
UDALA



GAUEGIZ
ARTEAGAKO
Udala



GERNIKA
LUMO



GIZABURUAGAKO
Udala



Ibarrangeluko
Udala



ISPASTER
udala



LEA-ARTIBAI
AMANKOMUNAZGOA



LEA IBARRA UDAL
MANKOMUNAZGOA



LEKEITIO
geure
nortasunetik



markina-xemein
udala



Mendexako
Udala



MUNDAKAKO
UDALA



MUNITIBAR
ARBATZEGI
GERRIKAITZ
UDALA



MURUETAKO
Udala



Mutrikuko Udala



Muxika, Gorozika eta
Ibarruniko herriak



NABARNIZKO
Udala



ONDARROAKO
UDALA



ZORTZA-SOLIBAR
ELIZATEKO UDALA



Idurre Eskisabel Euskalgintzaren Kontseiluko idazkari nagusia eta Manex Mantxola koordinatzailea, protokoloaren aurkezpenean. EUSKAL GINTZAREN KONTSEILUA

Protokoloa, euskararen aurkako oldarraldiari aurre egiteko

Protokoloa oldarraldi judizialari «erantzun irmoa» emateko asmoz garatutako tresna da • Uemak aurrerapauso handitzat hartzen du «modu bateratuan» erantzun ahal izatea

-MIKEL REINA BARROS

Euskalgintzaren Kontseiluak Oldarraldiaren aurrean hizkuntza-eskubideak babesteko Protokoloa izeneko dokumentua kale-ratu du, «euskararen normalizazio prozesuan atzerapausoak

egitera behartzen ari den oldarraldi judizialari erantzun irmoa» emateko asmoz garatutako tresna. Hizkuntza eskubideen aurkako erasoan aurrean antolatuta eta saretzeko balioko duena, euskalgintzaren eta hiz-

kuntza eskubideen defentsan sinesten duten askotariko eragile-
en arteko harremana eta elkarla-
na hauspotuz. Tokian toki eta
batasunetik erantzuteko tresna
edonoren esku jarri nahi izan
dute.

Gogorarazi dute Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak bere 2. artikuluan zehazten duela inor ezin dela diskriminatu izan bere hizkuntzarengatik, baina oraindik euskal hiztunen eskubideak ez daudela guztiz

bermatuta eguneroko arlo askotan. «Euskara hizkuntza gutxitua da bere herrian, hizkuntza hegemonikoez inguratuta, gaztelania eta frantsesa, eta egoera zaurgarrian dagoena». Horregatik, uste dute «ezinbestekoak»

direla erakunde publikoek eman ditzaketen «araudi eta neurri positibo guztiak».

Kasuistika

Funtzionamenduari dagokionez, bi kasutan aktibatu daiteke protokoloa: arau, kontratazio edo deialdi bati hizkuntza eskubideei loturiko helegitea jartzen zaionean, kasuari jarraipena egiteko; eta hizkuntza eskubideen edo euskararen normalizazioaren aurkako sententzia baten berri jasotakoan, erantzuna prestatzeko. Kontseiluak jakoko du kasuaren berri, eta eragileekin batera hurrengo urratsak aztertuko ditu.

Sententzien kasuan, eragin eremuaren arabera bi erantzun mota aurreikusi ditu Protokoloak: udal edo tokiko kasuak eta foru erakunde edo administra-

Argitu dute Protokoloa ez dela dokumentu itxia. Erantzun eta esperientziak batu alahia, eragileen ekarpenak jasoz, Protokoloa «berasten eta egokitzen» joatea dute helburu.

tuekin. Alde batetik, bertako euskalgintza udal mailako alderdi desberdinekin harremanetan jarriko da, salaketa bateratu baterako oinarriarik baden ikusteko. Erasoa salatzeko prest dauden eragile sozial eta politikoen artean eman beharreko erantzuna adostuko da, adibidez, adierazpen bat, prentsaurrekoa edota elkarretaratzea. Eragileen konpromiso maila desberdinak kontuan hartuta, ez da inor behartuko prest dagoena baino urrunago joatera.

Bigarren kasuan, foru erakunde edo administrazio orokorra-goetan, sindikatuekin batera erantzun bat adosteko saiakera egingo litzateke: salaketa adierazpena, prentsaurrekoa, elkarretaratzea, mobilizazioa...

Bi kasuetan, Kontseiluaren ardura izango da euskaingintzagaz, alderdi politikoekin eta sindika-

**Uemak uste du
«kezkagarria» dela
horrelako protokolo
bat sortu behar izana**

Erasoen aurrean antolatu eta sartzeko balioko du protokoloak

Protokoloa ahalik eta gutxien erabiltzea espero dute: albiste onena litzateke hori

tuekin harremanetan jartzea, eta beharrezkoa den kasuetan, euskarri eta baliabide desberdinak eskaintzea. Sententzien kasuan, egingarri denean, errekurtsio babesa adieraziko lioke erakundeari.

Argitu dute Protokoloa ez dela dokumentu itxia. Erantzun eta esperientziak batu ahala, eragileen ekarpenak jasoz, Protokoloa «aberasten eta egokitzen» joatea dute helburu.

Beharrezko tresna

Miren Segurola Uemako koordinatzaileak uste du «kezkarria» dela horrelako protokolo bat sortu behar izana, «euskara ofiziala denetik dozenaka urte pasatu direnean oraindik ere benetako lege oruberik gabe dabiltzalako udalak eta erakunde publikoak».

Era berean, sorrera ere «pozgarria eta beharrezkoa» dela nabarmenduz du, bestela bakoitzak bere aldetik osatuko beharko lukeelako bidea erantzuna prestatzen eta bidaritzen epaiegietan, erakundeetan eta kalean. «Protokoloa azken batean hizkuntza eskubideen urraketek erantzuteko bitartekoa da, eta saretzeko eta ahalduntzeko tresna da erakundeentzat zein herritarrentzat. Zentzu horretan, benetan ederra da ahalegina, eta hori guztia protokolo batean bildu

izana». Aurrerapauso handitzat hartzen du Uemak udaletatik eta erakundeetatik modu bateratuan erantzun ahal izatea. «Gainera, hizkuntza eskubideen defentsan aritzen diren eragileek elkarlana bultzatzen du».

Aurrera begira, protokoloak hizkuntza eskubideen «defentsa, saretzea eta antolatzea» ahalbidetuko ditu. Uemako kide diren udalak urte askoan aritu dira epaitegiz epaitegi, aktak euskara hutsean bidaltzeagatik, hizkuntza irizpideengatik, lanpostu publikari dagokienez bi-


postu publikoei dagozkien hizkuntza eskakizunengatik.... Protokoloak, nolabait, oldardaldierako eraso eta erantzun guztiak kasuistika zehatzen arabera multzokatzen ditu, eta horiei erantzuteko bitartekoak, moduak eta gainerakoak ere zehazten ditu. Protokoloagaz uste

teien ditu. Fotolokagaz aste
dute herritarrak zein erakunde-
ak ez direla «babesgabe» sentitu-
tuko. «Noraezean ibili beharre-
an babestuta sentituko dira era-
soren bat jasaten dutenak, eta
erasoen aurrean zer egin behar

den edota beste batzuek orain arte zelan jokatu duten ere jakingo dute. Tresna oso baliagarria izango da aurrerantzean».

Hala ere, «ahalik eta gutxi» erabiltzea espero dute, hori izango litzateke albisterik onena, «euskarak benetan biziberritze-ko eta aurrera egiteko beharrezkoa duen lege babesa edota lege orube sendoa lortu duela esan nahiko baitu horrek».

Protokoloa irakurgai dago:




www.uribarren.es
 **Uribarren Abaroa**
financiera 
94-684 00 55 • Fax: 94-684 07 58
residencia@uribarren.es
lilgo de Arrieta etorbide, 2 48200 LEKEITIO

Lea-Artibai eskualdean
Garapenaren bidea
euskaraz da.

Leartibai Fundazioa





IBANE DESIGN

TRANSFORMASI ALAM BUKAN HANYA ORnamen

7032 GAYU, K. 10/107 AMALITA, SRIKAYU
 08170 723 766 - 076 807 381
 E : info@ibane.co.id

www.ibane.co.id



LEKEITIOKO IKASTOLA
NATURA KASOLA BARRA

94 684 0959
lekeno@ikastola.eus
www.lekeitioikastola.eus






**Zubi Zahar
Herri Ikastola**

94 683 1416
ondarra@ikastola.eus
www.zubizahar.eus

www.erabil.es

ERABIL
KARTOI KUTXAK

Zuluetua auzoa z/g • AMOROTO
Tel.:94 684 40 02
Faxa:94 684 41 47
gromer@erabil.es

Herriz herri

ARRATZU

Bihar.

13:00. Gizonezkoen Bizkaiko Harrijasotze Txapelketa eta gi-Bizkaia Open zaku eramate eta lokotx biltze finalak.

20:00. Arratzu liburuauren aurkezpena, aretoan.

AULESTI

Gaur.

17:00. Uuuuuu ipuin kontaketa, liburutegian, Eneritz Artetxegaz. **Etzi, Euskararen Eguna.**

12:00. Itzalen distira liburuauren inguruko tertulia, liburutegian. **18:00.** Gaitu proiektuaren grabazio saioak, udaletxean.

BERMEO

Gaur.

10:00. Karpa zabaldu, Lameran. **11:00.** Tailerrak eta jokoak. **15:00.** Euskal abestiak abestu. **16:00.** Umeentzako ekintzak. **18:00-20:00.** Eingule lehiaketa. **18:45.** Diveniren erakustaldia.

Bihar.

11:00. Umeentzako tailerrak. **11:30.** Ginkana euskalduna. **13:00.** Euskal kanten kantaldia: Garazi Ziluaga eta Carmen Rute. **17:00.** Herri kirolak. **18:00.** Photocall-a eta dantza. **19:00.** Elbira Zipitria dokumentala eta solasaldia. **Etzi, Euskararen Eguna.** **09:00.** Mendi iteera Taraskatik. **11:00.** HITZaren zozketa. **12:00.** Taloa eta Perkusio taldea. **12:15.** Herri kirolak. **12:45.** Erraldoien Konpartsa. **13:15.** Berbalagun udazkeneko lehiaketako sari banaketa eta Errigora otzaren zozketa. **13:30etik aurrera.** Euskararen aldeko adierazpena eta pankarta erraldoia. **14:00.** Zeramika tailerra. **Goizean.** Aurpegi margoketa.

BERRIATUA

Abenduak 4, astelehena.

14:30. Teilatupean antzerkia, bideo gelan.

Abenduak 10, domeka.

19:00. Tutum Platz Jon Plazao-laren bakarriketa, frontoian.

BUSTURIA

Gaur.

09:00-15:00. Euskararen aldeko ekintzak, eskolan.

16:30. Eskulan tailerrak umeentzat, Altamirako plazan.

17:30. Txokolate-jana.

18:30. Zelan sortu zan Busturialdeko Hitz? hitzaldia, Oihana Cabello Elorriaga eta Larraitz Ibaibarriaga Etxaburugaz, Kultur Etxean.

Bihar.

18:30. Erdaldun berrien kluba antzerkia, Kultur Etxean.

Etzi, Euskararen Eguna.

10:00. Mape MTagaz ibilbidea. Irteera: Altamirako plazatik.

13:30. Adierazpena, salda beroa eta Errigorako bi otzaren zozketa, Altamirako plazan.

Ostean. Kantu Kantariren kantaldia, eta Irrintzi Alaikoekin batera, Iya guriak egin du dantza.

EA

Bihar.

13:00. Talo jana eta sagardo txotxa, Natxituko Bolatokian. **Etzi, Euskararen Eguna.** **19:30.** Bakarriketa: Iker Plazola, Maialen Sorzabalbere, Maria Blanco eta Julen Portillo, Natxituko Bolatokian.

ETXEBARRIA

Gaur.

19:00. Cadizko Damari Bertsoak 1823/06/27: errealisten ospakizuna San Martin Muruan liburua-
ren aurkezpena, Asier Aretxabaleta, Xabier Altzibar eta Jabier Kaltzakortagaz. **Etzi, Euskararen Eguna.** **10:00.** Gaitu kanpainako grabazio saioak, kultur aretoan. **12:00.** Eskola umeen bertsoak, kantaldia, Gabriel Arestiren Nire aitaren etxea errezitaldia, Egin nirekin ere euskaraz kanpaina aurkezpena, Pastoreak dokumentala eta Egunean Behin sariak, kultur aretoan.

Irudia Gernika-Lumo



Narrazioz narrazio

Joseba Sarrionandiaren Narrazio Guztiak-en pasarteak irakurri dituzte, Gernika-Lumon. 11 orduko irakurraldian egon da idazlea: «Gauza garrantzitsu modura hartzen dugu irakurtzea, baina egungo mundu utilitarioan motibo bat eskatzen da. Hor gabiltza poesia zer den edo hainbat gauza zertarako diren aztertzen; eskerrak eman behar dizkizuet, irakurketaren motiboaren bilaketan laguntzeagatik». A.M.A.

13:30. Kantu poteoa eta hitz galduen hiztegia, Otsolon hasita.

FORUA

Abenduak 4, astelehena.

17:30. Eskulan tailerra familiar (3-12 urte), kultur etxean.

GAUTEGIZ ARTEAGA

Bihar.

12:00. Pala Txapelketa.

17:30-19:30. Goazen Jolastera.

18:00. Mihiluze herrikoia, 12 urte gorakoentzat (gehienez lau pertsonako taldeak). Izen ematea: <https://labur.eus/mhlzArtia>. **Gero.** Karaokea eta txokolatea. **Etzi, Euskararen Eguna.**

10:30-12:30. Herri kirolak. Umeentzako jardunaldia Elantxobe Aeko kideagaz eta Alex Goitia puntistagaz eta Arkupe Sustabizekoen harrijasotze erakustaldia: Iñaki Rafael (Gernika-Lumo), Engells Bello (Busturia) eta Ane Atxustegi (Usansolo). **12:30-13:30.** Dantzak eta kantak. **13:30-15:30.** Triki poteoa. **18:00.** Merienda helduen elkartean.

GERNIKA-LUMO

Bihar.

12:00. Segundo Olaeta eta Urdaibai Kantagunekoen Euskal Lorrazak, Merkatu Plazan.

KORTEZUBI

Gaur.

20:00. Gure Arbasoen Herria Kultur Elkartek antolatuta, triki bertso poteoa eta sartenekoa, txokoan, Ibai Amillategi, Ander Elortegi eta Koldo Gezuragazagaz.

LEKEITIO

Bihar.

12:00. Erraldoiak eta buruhandiak txistulariekin, udaletxetik.

13:00. Kantujira, Zaletxuen eskutik, Eskolapetik hasita.

20:00. Txirrist, Nautikatik. **Etzi, Euskararen Eguna.**

13:00. Giza katea eta manifestuaren irakurketa, plazan.

MARKINA-XEMEIN

Gaur.

12:00. Kalejira eta ekitaldia, ikasleekin, udaletxe aurrean. **16:30.** Hikodromoa, Uhagonen. Izen ematea: markina@ae.eus edo 607 59 62 61.

Bihar.

11:00-14:00 eta 16:30-19:30.

Gaitu proiekturako grabazioak, udaletxe aurrean.

Etzi, Euskararen Eguna.

12:00. Omenaldia Nekane Aginagari, Artibai 30 helbidean.

12:30. Irakurketa musikatua, Arkupe aurrean (euriagaz, Plaza Barripean).

MENDEXA

Bihar.

14:30. Bertso bazkaria, Leagi kanpinean, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbiogaz. **Etzi, Euskararen Eguna.** **12:00.** Talo tailerra eta Zuresku Egurrezko jolas tradizionalak

MUNDAKA

Gaur.

09:00/10:00/11:30. Hotz ala Bero, irakurri egunero, Mirugaz, udal liburutegian (LH1-LH6). **16:00-20:00.** Gaitu, liburutegian. **17:30-20:30.** Kareta eta txapa tailerra, ludotekan. **18:30-22:00.** Euskararen Egunerako pankarta, Gaztelekuan.

Bihar.

17:30-20:30. Kareta eta txapa tailerra, ludotekan. **18:00-22:00.** Euskararen Egunerako pankarta, Gaztelekuan.

Etzi, Euskararen Eguna.

12:00. Kuku. Ezkutuan dauden emakumeak antzezlan, Alkate Mallona Kiroldegian.

13:00. Agirre Lehendakaria plazan: udaletxean pankarta jarri, manifestua irakurri, umeen bertsoak, II. Gabonetako postal lehiaketako sariak eta argazkia.

MUNITIBAR

Gaur.

19:00/20:30. Film laburren

proiektzioa, ludotekan: 365 egun euskaraz, Balu eta balitz, Euskaldun berriaren esketxa, Zaunk, Euskararen misterioa. **Etzi, Euskararen Eguna.** **13:00.** Irakurketa eta bertso saioa, herriko eskolako umeen eskutik eta Munitibarko Kantu taldea, herriko plazan.

MUXIKA

Etzi, Euskararen Eguna.

11:00-14:00. Marrazki lehiaketa, Gabonetako postala aukeratzeko (0 urtetik LH 4.mailara), umeentzako puzgarriak, tailerrak, jolasak, taloak egiteko tailerra umeentzat eta musika. Taloa eta txorizoa guztientzat.

MUTRIKU

Gaur.

16:00. Kalejira erraldoiekin eta txistulariekin, Goizeko Izarra Ikastolatik hasita. **17:00.** Txokolate beroa eta argazkiak, Goiko Plazan.

Bihar.

12:30. Kantujira, Beheko Plazatik hasita, Anaiarte Biltokiaren eskutik. **Etzi, Euskararen Eguna.** **11:00.** Ahotsak mokadu trukel, Beheko Plazan. **13:30.** Bertso poteo musikatua, Beheko Plazan. **17:00.** Euskara bidegurutzean hitzaldia, Paul Beitieren eskutik, Zabielen.

ONDARROA

Etzi, Euskararen Eguna.

Goizean. Gaitu proiektuaren grabazio saioak, Alamedan. **13:00.** Euskararen aldeko danborrada, Zaldupetik Itsasaurra. Ostean, Manuelistei aitortza.

SUKARRIETA

Bihar.

18:30. Sukarrietako toponimia ezagutzeko azalpena eta Sukarrieta, itsaso eta lehor liburua-
ren aurkezpena, Ludotekan. **19:30.** Gaitu, Ludotekan: makinei eta teknologia digitalei euskararako irakasteko audioak grabatu dituzte. **21:30.** Bertso afaria, Onintza Enbeitagaz eta Mikel Retolazagaz, Plazatxo tabernan (25 euro). Izen ematea: 94-687 07 15 / udala@sukarrieta.eus.

ZIORTZA-BOLIBAR

Gaur.

19:00. Hobe ixilik antzerkia, Eskolako aretoan.



Durangoko Azokako zenbait antolatzaile, 58. ekitaldiaren aurkezpen agerraldian. GEREIDIAGA ELKARTEA

Eskualdeetako artistek hainbat arloko nobedadeak aurkeztuko dituzte urteko plaza berezietakoan, abenduaren 6tik 10era artean egingo duten 58. Durangoko Azokan.

Anitza, gaztea eta fantasiatsua

—ALEX URIARTE
ATXIKALLENDEN

Euskal kulturgingintzaren erakusle horiek esanguratsuenetako ate joko dago. Izan ere, abenduaren hasierak esangura berezia dauka Euskal Herriko sortzaileentzat nahiz kulturzaleentzat. Beste urte batez, argia ikusi berri duten edo ikustekotan dauden ekoizpenak modu ofizialean aurkeztuko dituzte Durangoko Azokan.

Landako Gunea izango da 58. Durangoko Azokaren epizentro nagusia. Bertan bilduko da libururik, disko eta bestelako azoka. Aurten, 257 erakusmahai egongo dira azokagunean, eta 170 partaidek parte hartuko dute. Berritasunak jaun ta jabe izango dira beste behin. Musikaren zein literaturaren alorretako 950 nobedade plazaratuko dituzte Landako Guneako «espazio bizi eta mamitsuan».

58. ekitaldia «fantasia hutsa» izango dela iragarri dute Gere-

diaga Elkarteko antolatzaileek. Beñat Gaztelurrutia koordinatzailearen berbetan, azoka «euskal kulturaren aldeko elkarlanaren fruitua» da: «Euskalgintzak azkenaldion ohartarazi legez, bai euskarak, bai euskal kulturak gizartearen babesa behar dute, denok bultzada emateko norabidean lan egiteko, gure fantasia gau bateko amets zaputza izan ez dadin».

Azokaren aurtengo proposamen fantasiatsuen barruan, ikusmolde «gaurkotua eta bogan dauden proiektuak biltzen dituen» nabarmentzen dira, ezaugarri nagusi bigaz: «Batetik, azoka anitza izango da; bestetik, gaztea. Oinarri bi horiei fantasia gehitu behar zaie, sormenaren eztanda magikoa delako, amets egiteko espazio bizi-bizia baita».

Aurtengo uzta kulturalari dagokionez, aurkeztuko dituzten 950 berritasunetatik 689 libururik izango dira; 179, diskoak; 44, aldizkariak; horiekin batera, bestelako beste 40 ekoizpen egongo dira. Iazko eskaintzagaz alderatuta, musika ekoizpenak

gorakada edukiko du aurtur. Hain zuzen ere, 2022an baino 38 ale gehiago plazaratuko dituzte. Era berean, hala komikiek, nola ilustrazioek hazkunde edukiko dute; zentzu horretan, marrazkilariei estreinako beren lana zuzenean bistaratzeko aukera emango diete, pantailen bidez.

Gazteak, lehen lerrora

Azokaren aurtengo ekitaldiaren ardatzetako bat gaztetasuna denez, inoiz baino jarduera gehiago egongo dira gazteek sortuak edota gazteentzako sortuak izango direnak. Horregaz batera, gazteei begira prestatu dute abenduaren 8ko egitaraua: Gazte Eztandaren bigarren ekitaldia egingo dute azokako hirugarren egun horretan.

Azokaguneaz harago, 265 ekimen bilduko dituen kultur egitaraua ere prestatu dute. Udalerriko zortzi gunetan banatuko dute azokako egitarau eskaintza: Talaia, Durangoko Museoa, Zugaza zinemako Irudienea, Kabia, Platerueneko Ahotsenea, Musika Eskolako Ahotsenea Literatura,

umeei zuzendutako Saguganbara eta San Agustin Kulturguneko Szenatokia.

Eskualdeetako ekoizpena

Lea-Artibaiko zein Busturialdeko sortzaileen ordezkaritza, beste urte batez, Durangon egongo da, bere sorkuntza ekoizpenak jendaurrean aurkezten. Denetarik formatuak plazaratuko dituzte, besteren artean, musika, ikus-entzunezkoak, literatura eta antzerkia.

Miren Agur Meabe idazle lekeitiarrak *Itzulerak* elaberria aurkeztuko du abenduaren 8an, 16:30ean, Musika Eskolan. Josu Bergara eatararren *Loa eta Laia* filma ikusi ahalgo da Zugazako pantaila handian, abenduaren 6an, 15:40an.

Antzerkia ere eskualdeetako egileen indarguneetako bat izango da Durangon. Ander Lipus markina-xemeindarrak aurkezpen bikoitza edukiko du abenduaren 10ean: *Antzerkiaren Labirintoan* ekoizpenaren atal biak —*Bitakora Koaderno* eta *Artedrama baten bila*— era-

kutsiko ditu Musika Eskolan, 13:00etan hasita. Jon Ander Urresti bermeotarrarentzat ere aldi berezia izango da aurtengoa: iazko azokan Sormen Beka poltsikoratu ostein, lorpen haren ondorio den *Eukalyptus* antzezlanaren aurkeztuko du; abenduaren 8an izango da, 17:30ean, San Agustin Kulturgunean.

Musikariak ere protagonista izango dira aurtengo azokan. Platerueneko agertokira igoko da, besteak beste, Ziraun talde gernika-lumotarra, *Argitik* albuma aurkezteko. Hannot Mintegia *Moxal*-ek eta Felinek ere beraien lan berriak Platerueneko ikusleen aurrean aurkezteko aukera edukiko dute: lehendabizikoak *Nabar* diskoa oholztaratu du, abenduaren 7an, 18:00etan; bigarrenak, osteria, *Jan Zu* izeneko, hurrengo egunean, 20:20an.

Era berean, 58. Durangoko Azoka zarratu eta biharamunean, Zu Non Han DA! ekimena ipiniko dute martxan: azokako berritasunak Euskal Herriko 88 dendatara ailegatuko dira; horietako 27tan, gainera, aurkeztuko egingo dituzte.

Bertokoekin hitzordua

ABENDUAK 6, EGUAZTENA

15:40-16:10. Ziraun taldearen *Argitik* diskoaren aurkezpena, Ahotsenean.

ABENDUAK 7, EGUENA

15:00-16:00. Josu Bergararen *Loa eta Laia* filmaren emanaldia, Irudienea.

18:18-30. Hannot Mintegia *Moxal*-en *Nabar* diskoaren aurkezpena, Ahotsenean.

ABENDUAK 8, BARIKUA

17:30-18:30. Jon Ander Urrestiren *Eukalyptus* antzezlanaren aurkezpena, Szenatokia.

ABENDUAK 9, ZAPATUA


16:30-17:00. Miren Agur Meaberen *Itzulerak* liburuaren aurkezpena, Ahotsenean.

20:20-20:50. Feline taldearen *Jan Zu* albumaren aurkezpen kontzertua, Ahotsenean.

ABENDUAK 10, DOMEKA

13:00-13:30. Ander Lipusen *Antzerkiaren Labirintoan I: Bitakora* koadernoaren antzezlanaren aurkezpena, Ahotsenean.

Jarraian. Ander Lipusen *Antzerkiaren Labirintoan II: Artedrama baten bila* antzezlanaren aurkezpena, Ahotsenean.



EUSKARAK
365
EGUN

Euskaraz lan eta bizi gara
abenduak 3
euskararen
eguna

BELAZAHAR

- Zure maskotarentzat behar duzun guztia
- Txakur ileapaindegia
- Albaitari kontsulta

94 684 06 71
belazahar@yahoo.es
SANTA KATALINA IBILBIDEA - LEKEITIO

ARRIZABALAGA
INMOBILIARIA

Guen kalea, 14 - MARKINA-XEMEIN
Juanjo Arrizabalaga 685 75 41 28 • Joseba Egia 651 70 43 73

lagunkor
aholkularitza & inmobiliaria

Artabide 12, Ondarroa / Info+ 94 683 18 02 / info@lagunkor.eus

Fideslan
Negozio kontsultoria eta aholkularitza

Antiguako Ama, 11
ONDARROA • Tel.: 94-683 32 08
DONOSTIA • Tel.: 943-429 609
fideslan@fideslan.com

GOITIKO
JATE ETXEA
KAFETEGIA

Foru Enparantza, z/g • LEKEITIO
94 684 31 03

IZAYFER
ASESORIA-AHOLKULARITZA

Fiskal • Laborala
Kontularitza • Erretiroak
Errenta • Aseguratuak

Agirre Solarte, 11 • 48200 Lekeitio
Tel. 94 684 75 85 • Fax: 94 684 31 66

Alday
hartz klinika

INPLANTEAK, ORTODONTZIA,
ODONTOLOGIA ESTETIKOA,
PERIODONTIA, PROTESIAK,
3D SIKANERRA ETA
ORTOPANTOGRAFIA

San Agustín, 5 - beheak
MUTRIKU
943-60 39 53 • 618 09 18 52
klinikaalday@gmail.com

4 Eraikuntzak
Kortabilarte

Santa Katalina, 1A
Tel. 94 684 08 52
Faxa: 94 684 26 78

ETXEBIZITZEN SALMENTA
• MOTA GUZTITAKO
ERAIKUNTZEN,
PARTZELEN ETA
TRASTEROEN SALMENTA

N MASKOTEN
DENDA ETA
ILEAPAINDEGIA

San Inazio 37, beheak
Ondarroa
Tel. 94 656 94 61
elgeta@me.com

ALBAITARITZA
ZERBITZUA
ERE BAI!

LAVROK, S.L.
IGELTSERITZA

636 150 729 • 629 561 332
Gardotza Industrialdea, P 21 Eraikina • BERRIATUA

sukaldeko altzariak | atek | leihoak | etab...

OSQ
aroztegia

94 683 02 29
Iñaki Deuna 29 / Ondarroa

NABERAN
www.naberan.com

ITSASORAKO
SAREAK
ETA ITSASGAIAK

Mutrikuko Industrialdea, 15
61 postakutxatila

MUTRIKU
ff.: 943-19 51 22
faxa: 943-19 51 25

Seijo
PINTURA
LANAK

629 31 50 11
626 77 43 42

LEKEITIO
Eusebio M. Azkue
(Trinkete aurrean)
sejopinturak@sejo.com

TXAIFER
ERAIKUNTZAK, S.L.

Telatuak, fatxadak, etxe barruko konponketak, igeltseritzako lanak orokorrean.

605 71 18 84
Letraukua 1-behea
LEKEITIO txaifer@yahoo.es

OGITEGIA PLAZA

ATXABAL, 4
LEKEITIO
94 684 02 07

FISIOTERAPIA ZENTROA
TXOMIN TXURRUKA

AUTO ISTRIPUAK
KIROL LESIOAK • MASAIA
ERREUMATOLOGIA • TENDINITISAK
BIZKARREKO ETA BURUKO MINAK
Opari txartelak!

94 616 60 32
Artibai, 12 beheak, Markina-Xemein

eskola eta
bulegoetarako materiala

URBIETA
PAPERTEGIA

Artolaba, 4 beheak
94-624 38 32
LEKEITIO

porru
anaiak
margolariak

657 771 028
615 767 564
artakuk@gmail.com

GO
Gaitiaz

INGURUNEA ZAINDUZ ERABILTZEN DUGU

30 URTE
Gaitiaz

UKURKAN
TALDEA

ANTZEMENDI INDUSTRIAGUNE, 9. pabiloia • Galdona bidea • 20830 MUTRIKU
Tel. 943 603934 / Faxa. 943 607147 / urkan@urkan.net

www.urkan.net

AHK
AKARREGI
HAGIN KLINIKA

Juan Jose
Akarregi Loyola dokt.
(Kol. zb.573)
R.S: 48C.2.5.15945

94-684 27 02 / 688 82 68 31
akarregi@clinicadental@gmail.com
P. Abaroa Etorbidea 26 bis-behea. LEKEITIO